

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

Delegado de la Institución Príncipe de Viana
MARCELINO GARDE

Zortzigarren urtea — Pamplona, Marzo - 1973 — Epailla — Iruña. 85-gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

NAPAR GUZIEI

Forudun Diputazio au poztutzen da napar guziei, jarraitzen dana, jakinarazten:

España-ko Agintari Nagusiak Lege bat eman duela Naparroa'k antziñatik dauzkan Lege Zaarren Bilduma ontzat emanaz.

Lege ori Estaduaren Boletínean argitaratua izan da ill onen lenengoan.

Naparroa'ko Bilduma orrek 596 lege ditu; bertan gure Lege Zaarrak oso-rik jasoak daude. Izen aundiko lege-gizonak osatzen duten batzordeak egin dute Bilduma ori.

Aurten Ibeltza'ren 26'an onartu zuen Diputazio onek, Kontseju Forala'ren Batzordearen iritzia entzun ondoren.

Garrantzi aundiko berri au Naparroa'ri pozik jakin araziaz, gure eginkizuna betetzen dugu, Napartarrak beren Legeen berri izan dezaten. Orrela, aspalditik nai genduen mugara eldu gera.

Iruña, 1973-ko Epailla'ren 7'an.

AMADEO MARCO, Lendakari-ordekoa

NAPARROA'KO LEGE ZARRAK, AURRERA!

Naparroa ikaragarriko nortasun aundikoa dala, gaur danen agirian dago; bere lurak, euskara izkuntz zoragarria, gizon berexiak, lege zarrak edo «fuerok» eta oiturak. Bide ontatik lana egiten dutenak, Naparroa zuzperten eta eraberritzen ari dira. Lurak, gizonak, izkuntza, lege berexiak eta oiturak, Naparroa'ren abe nagusiak ditugu. Oien bitartez agertzen zaigu bere nortasuna; berekoak eta bereak ditulako.

Aurtengo Epailla illea garrantzi aundikoa da Naparroa'rentzat. España-ko Estaduaren Boletínean, Naparroa-ko legeak danak batean alkartuta argitaratu dituzte. Ez dute ezertxore aldatu.

Ziran bezelaxe agertu dira. Onek esan nai du Naparroa'ko legeak España-ko Estaduaren aurrean indar osoa daukatela. Ikusten dugunez, ez da txantxetan ibiltzeko gauza. Naparroak bere lege berexiak dauzka, bere nortasuna agertzen digutenak. Napar bat ditun legen bidez biziko da ta ez bestetan daudenekin.

Lege auek berexitasun aundia daukate. Auzitegira joanez gero, naparra bere legearen bidez epaitua izango da. Gaiñera, ez nolanaiko legeak. Oitura zarra garbia, lege guztien aurretik on artua dago. Oituren ezean, orduan Naparroa'ko legeak du itza. Naparroa'ko legea zerbaitean ixilik ba dago, Erromatarren lege zarrak dauka azken itza. Naparroa'ko legeak eta Erromatarrenak ixilik egotea gertatzen danean, España-koak balio du.

Ori dana, ain zuzen ille ontan, España-ko agintariak ontzaz artzeak, aunitz esan nai du. Naparroa zerbait dala, nortasun aundia daukala adierazten digute.


Naiz agintariak, aintzaz artuak izan, ba daude bertze aunitz Naparroa'ko bere lege berexi auek ezin dituztenak ontzaz eman eta ziria sartu naian dabilzanak. «Sábado Gráfico» aldizkariak, Naparroa'ko Legen Bilduma Berraren berriak eman dizkigu, baiñan okertuaz eta irriparra eragiñaziaz. Naparrak ez dira ixilik gelditu, ta «Pensamiento Navarro» egun-

kariaren bitartez gorriak erran dizkiote. Eztabaida bear zan maillara altxa dute. Naparroa'ko Diputazioa bere lege zarren alde lana egite arren ez da lo gelditu. Legegizon ospetsu batzuek aurreratu zuten lana; egindakoa, Justiziako Ministroaren bitartez España-ko agintariaren eskuetan utzi zituzten. Azkenean onek, dan bezala, ontzaz artu ditu.

Ekintza onen bitartez, berriz Naparroa indar aundiekin agertzen zaigu. Indar auek bere nortasunaren zati berexiak ditugu.

Gauza aunitzetan Naparroa bere bizi ta buruaren jabe da. Bere lege berexi oiek on artuak izateak, aunitz esan nai du; ez dala bertzeak bezalakoa, ain zuzen. Bere lege berexi oiek, bere nortasuna zuzperten dute ta bere arpegia indar berritua agertzen digute.

Ikusten dugunez, ille ontan Naparroa'ko legekin gertatutakoak zer erran nai aundia dauka. Naparroak Fue-roak ditula entzuten dugunean, gure erruz, ez dakigu zer erran nai duan. Izen zar-



orrek aitortzen du Naparroa'ren nortasuna ta indarra.

Napar guzien egitazko go-goa ta naiá izan bear litzake, Naparroak dauzkan eskubideak ongi ezagutzea; orduan konturatuko lirake indar ta berexitasun aundiak dauzkala. España'n aunitzek enbidia edo bekaizkeria diote, ta erraten dute: «Zergatik ez da bertze probintziak bezalakoa»? Naparrak, berriz, ez dute ezer galtzen erraten:


«Zergatik bertze probintziak ez dira Naparroa bezala? Guk ori nai genduke». Naparrak beren agintaritzatza, bes-tzentzat ere berdiña nai dute; ori da biotz onekoa izatea.

Europa'n nazio aunitzeta-ko errialdekoak Naparroa'k dauzkan eskubideak lortu nai lituzkete. Aunitzek Naparroa'ren argia ta bearra benetan daukate.

Ele zarrak gaur oraindik ematen digu bere argitasuna: «**Naparroa beti aurrera...!**»

GV,
GAVRKO EVSKALDVNOK,
EMEN BILDV GERA,
GVRE GVRASO ILLEZKORREN
OROIPENAZ,
MVNDV GVZIARI JAKIN-ARAZTEKO,
GVRE LEGE ZARRAK
GORDETZEKO PREST GERALA.

(Napar Foruen Oroitarrian dauden itzak)



La Excma. Diputación Foral de Navarra presenta sus respetos al Caudillo.



DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

NOTA OFICIAL

Esta Diputación Foral ha tenido el alto honor de ser recibida corporativamente en audiencia, en el día de hoy, por el Excmo. señor don Francisco Franco, Jefe del Estado.

En la audiencia citada, la Corporación Foral fue presentada por el Excmo. señor don Antonio María de Oriol Urquijo, ministro de Justicia, e igualmente asistió a la audiencia el Excmo. señor don José Ruiz de Gordo Quintana, Gobernador Civil de Navarra.


La Diputación, por medio de su Vicepresidente, excelentísimo señor don Amadeo Marco Ilincheta, leyó un mensaje de gratitud sentida, fervorosa, para S. E. el Jefe del Estado, por haber tenido a bien hacer uso de sus facultades excepcionales, a través de la Ley de primero de este mes, relativa a la "Compilación de Derecho Civil Foral de Navarra".

En el mismo mensaje se hacía alusión a otros temas de interés para nuestra tierra, como los del enlace de la autopista, en su segunda fase, con la de Bilbao-Behobia, industrialización, etc.

Su Excelencia respondió señalando la doble satisfacción que tenía por recibir a los representantes de Navarra y por el motivo de haber podido firmar una Ley especial referente al Derecho Foral Civil de dicha región. Añadió que agradecía todo lo que Navarra ha hecho y viene haciendo en el esfuerzo común para el engrandecimiento de la Patria, y estimuló a continuar en este camino de trabajo colaborador, en beneficio de la propia Navarra y de los ideales colectivos nacionales.

Su Excelencia puso de manifiesto, una vez más, el afecto particular que tiene para Navarra y los diversos aspectos que ésta —y a su Diputación Foral— puedan interesarle.

28 de Marzo de 1973



"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

RESUMEN

- 1.ª PAGINA** NAPAR GUZIEI (A todos los navarros).—Comunicación oficial del Vicepresidente de la Diputación, don Amadeo Marco, sobre reconocimiento y firma en Madrid de la nueva Compilación del Derecho Foral Civil navarro.
- NAPARROA'KO LEGE-ZARRAK AURRERA!** (¡Adelante los fueros de Navarra!).—El Estado acaba de reconocer, con grandeza, la personalidad de Navarra, que se manifiesta en sus tierras, en sus hombres, en su lengua propia y en sus Leyes privativas. Respuesta a los envidiosos. Validez del modelo navarro en una España organizada, racionalmente, por sus regiones.
- 2.ª PAGINA** EUSKALTZAINDIA (Academia de la Lengua Vasca).—Extracto de la reunión mensual de la Academia.
- 3.ª PAGINA** ZUBIETA-KO IÑAUTERIK (Carnavales de Zubieta).—Reportaje de "Latxaga" sobre un típico Carnaval y las actividades de un pueblo.
- DIEZ DE ULZURRUN ON PEDRO'RI, AGUR!** (Saludo a don Pedro Díez de Ulzurrun).—La dimisión de don Pedro nos ha hecho reflexionar en su larga, fecunda y silenciosa labor al frente de la revista. ¡Gratitud!
- NERE GURASOEI, MAITEZ!** (A mis padres, con amor).—Tributo filial de F. Ijurco en las Bodas de Oro de sus padres: años difíciles; evocación familiar de "Orixe"; "agradecimiento por la vida, por el alma vasca; y, sobre todo, por la fe cristiana, ardiente, que nuestros padres nos han transmitido".
- 4.ª y 5.ª PAGS.** "BERTSOLARIA".—Páginas deliciosas en verso vasco; nuestros "koblaris" cantan los eternos temas: Dios, el mundo, la vida, nuestra tierra, su lengua, sus hombres, sus cosas.
- AIZPARIK NAGUSIENA** (Hermana mayor).—C. Gallastegui, vizcaíno, conoce y ama a Navarra.
- OROITZAPENAK** (Recuerdos).—El Dr. Hernandorena aporta los suyos, vivos, en merecido homenaje a Basarri.
- 6.ª PAGINA** EUSKAL-ERRIKO LEIOA (Ventanal del pueblo vasco).—Noticias sueltas y diversas de distintas partes del país.
- PATXI ARRARAS JAUNAREN ITZALDIA** (Conferencia de Patxi Arrarás).—En el Ayuntamiento de San Sebastián; tema: "El folklore baztanés".
- 7.ª PAGINA** ERRIZ-ERRI (Crónicas de pueblos).—GORRITI: Sentida muerte de Paquita Alduncin. SUMBILLA: Restauración del templo parroquial a cuyo beneficio actuó el grupo "Intxitxu", con la "pastoral" titulada "Aralar".
- 8.ª PAGINA** IKASTOLARI BURUZ (Sobre la ikastola).—"Anko Sendoa" dice: "La escuela es uno de los caminos más importantes para que una lengua familiar perviva". "El apoyo que la Diputación da a las ikastolas nos llena de esperanza". "Se nos indica el camino, pero el caminar depende de nosotros".
- ELE-MELE** (Chascarrillos).
- "KARDABERATZ BAZKUNA", TALDE INTERESGARRI BAT** (Asociación Kardaberaz, un grupo interesante).—Por "Larrate". Esta renacida sociedad agrupa a vascos preocupados por la lengua y la religiosidad de nuestro pueblo. La misma preocupación movió, en el siglo XVIII, la actividad del jesuita Kardaberaz bajo su lema: "Jainkoak nai du euskarak burua jasotzea". "Dios quiere que para bien de las almas el euskera levante la cabeza".
- EUSKAL IZENAK: MAIDER** (Nombres vascos: Maider).—"Sagi" presenta las vicisitudes de este antiguo nombre, ampliamente documentado en los Archivos de Navarra.

HOMENAJE A DON LORENZO MARCO SARRIO

En Madrid le ha sido impuesta la Gran Cruz de Cisneros a don Lorenzo Marcó Sarrió, Presidente de "Papelera de Leiza, S. A."

La representación navarra al acto la constituían los Alcaldes de Leiza, Larráun, Araiz, Betelu, Areso, Goizueta, Santesteban e Ituren, presididos por el señor Gobernador y


los Diputados Forales señores Ezponda e Irazoki.

El Ministro impuso a don Lorenzo las insignias, haciendo el ofrecimiento de ellas —a nombre de los mencionados Alcaldes— el que lo es de Leiza, don J. M.ª Sagastibelza. Palabras cordiales por lo que Papelera significa en el desarrollo de Leiza y de su comarca; y números, que eso es lo que, al final, cuenta: 25 años de la Compañía; 15 de su establecimiento en Leiza; 7 plantas industriales dedicadas al papel; unos 1.400 puestos de trabajo. Su exportación va hacia los cinco continentes.

El Ministro hizo un elogio de la constelación Sarrió y tuvo un cariñoso recuerdo para Navarra.

Don Lorenzo Marcó Sarrió cerró el acto con estas hermosas palabras: "A la Diputación Foral, la promesa de que con entusiasmo y fe inquebrantable y el profundo amor que sentimos por esa tierra noble, seguiremos aportando nuestro grano de arena."

Copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA



OARRA

Gure irakurlei:

Ezbear bat gertaturik, gure aldizkari onen ale au atzeratu xamarra atera da.

Etorkizunari buruz bere garaian argitaratzen aleginduko gera.

Barkatu ta eskerrik asko!



EUSKALTZAINDIAREN BATZARREA

Joan den otsailaren 23 an Euskaltzaindiak bere hileroko batzar arrunta egin zuen Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian.

Hona hemen batzarrean erabilitako gai nagusi batzuen laburpena:

Etor-ek ateratako gupil gisako Adiztegiari buruz, hauxe esan beharrean gertatzen da Euskaltzaindia: Gupil hortan dauden adizki batzuk Euskaltzaindiak onartuak izanarren, edizio horrek ez duela ofizialtasuna eta ez inongo baimenik gure aldetik.

Pierre Lafitte euskaltzain jaunak txosten bat irakurri zuen: "Euskal adizteko hiruke atzizkiak". Ondoren elkar hizketa bat izan zen azterketa-gai hontaz.

Euskaltzaindiko barne araudiaren lehen asmoa gerta dezala agindu zitzaion hartako den batzordeari.

"Euskera" Euskaltzaindiaren aldizkariak truke eginez, euskal aldizkariaren bilduma osatzeko bideaz hitz egin zen.


Haritschelhar lehendakari ordeak berri pozgarri bat ekarri zuen: heldu den udan, udako euskal Unibersidadea antolatuko dela Bordeleko Unibertsidadearen izenean, ofizialtasun osoz eta Departamentuko Konseilu Jeneralaren itzalaz. Eta halaber Euskaltzaindiaren itzala eta lankidetzaren eskatu zituen. Eta eskatu bezala erabaki zen.

Maiatzaren 3, 4 eta 5 ean Bordeleko Unibertsidadean Jardun batzuk izango dira honako gai hontaz: XIX mendeko lehen erdia Euskal Errian. Jardun hoietarako ere Lehendakari ordeak Euskaltzaindiaren itzala eta lankidetzaren eskatu zituen, eta bai lortu ere.

Eskola hiztegia prestatzen ari den batzordeak hiru zerrenda aurkeztu ditu. Zerrenda hoiak euskaltzain oso eta aholkulariei pasatuko zaizkie, oharak egiteko hilabeteko epea ematen zaiela.

(Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoko Agiria)

DIEZ DE ULZURRUN ON PEDRO'RI, AGUR!



Diez de Uzurrun'dar Sendagille jauna, euskaldunen artean oso ezaguna, PRINCIPE DE VIANA aldizkari onen asieratik arduradun izanda.

Bere lan luze, emankor eta ixila agertzen bezaigu

ale guzien bilduma irakurriaz. Lan ontan, neke, kezka, ta naigabeak etzaizkio faltatu izango.

Aspalditik ongi irabazi, ta amaika aldiz eskatu zuen atsedena, azkenean iritxi zaio.

Biotz oneko gizonak jakin bear du euskalzale guztion eskerrona jaso duela.

Gure aldetik dakigu, euskeraren aldeko langille bikain ori ez dala, zorionez, geldirik egonen. Berak nai izan orduko, emen gorderik dauka bere txokoa.

Eta gorderik daukagu —biotzean, jakiña!— bere eskeintza zabala; ordaiñez, arbitza On Pedro maiteak gure besarkada beroena, gure "eskerrik asko" egitazkoena.

GARDE-tar MARKELIN

ZUBIETA'KO IÑAUTERIK

Aurtengo iñauterik joanak direla, Zubietan egiten direnak merezi dute aipatzea. Guk aurreneko urtean ikusi genituen. Iñauteri jaia Zubietan zalata Ituren'dik turturuen atzetik erri ontara abiatu giñan. Zubieta'ko turturruak bidera Ituren'goen billa atera zitzaizkien. Jauzi txiki baten asiera izan balitz bezela, zaldiaren pausua daramakitela, danak batean, yoareak otzenka, sartu ziran Zubieta'ko errian.

Orain, erdian, Zanpanzar zebilkiten, beltzez jantzita ximukeriak egiñaz, arlote xamar, ezinegenez. Emparantza gizasemez bete bete zegoen. Aien atzetik gurdiak; sagardo egiten, taloak erretzen, kosmonautak eta azkenak aizosoñua bonbo aundi batekin. Bazter batean neska lirain batzuek salda danei ematen eta eskeintzen zieten. Gaztetxo asko mozorrotuta zebiltzan.

Turturruak beren yoare otsa joaz enparantzen mutur

batetik bestera gelditu gabe zeuden. Ura zan ludiko beste bazter batean arpegia sartzea. Zoritxarrez, nere iritzi, utsune aundi bat ikusi nuen. Txisturik etzegoen. Orrelako euskal kutsuzko jaietan txistua bearrezkoa dala deritzait.

Erria mendiz inguratua, tarte batean bilduta dago, eliza egi baten gainean bertan daukala. Erregebidea ondotik dijoakio, pixka bat baztertatua gelditzen dala ta tartean Ezkurra ibaia. Mendian banatuak igei baserri daude. Denatara lareun bizi-lagun dauzka.

Euskal kutsu aundikoa degu erri au. Inguruetako euskaldunena ziurasko. Euskera danak gogotik egiten dute. Ba daukate bertako semea bersolaria ere. Auspoa bilduman Aita Zabalak bere lanein ale bat 97 zenbakia eskeini diona, bere izena Juan Migel Bera Ezkurra, Argentina'n il zana.

Aizkolariak ere beti izan ditu. Ortarako azkar asko gazteak gertutzen dira. Baleztena danetan ezagunena. Ementxen Azkuek, kantazar bat, "Zubietako neskatxak" izenekoa, bildu zuan.

Eskulanetan oraindik aberatsa degu. Juan Bautista Santesteban kaiku, oporra ta abatza egilea da. Artzaintza ugari dalako, bear dituzten tresnak egiten ditu ta neurri askotakoak. Ementxe ikusten dira berri berriak amabost litroko kaikuak eta gazta egiteko bi kirteneko ontziak, abatza izenekoak.

Marzelino Sanmiguel berriz yoaregilea da. Bere olatxikian gaur yoareak ta txintxarriak egiten ditu. Lengo batean beldurtu zan. Donosti'ko Diputaziotik bere ola oso osorik erosten ziotela esanaz, deitu zuten.

Naiz erri txikia izan, kale guztiak oso bikain antolatuak daude. Zimentuakin, ondo zuzenduak, garbiyak. Arri ugari ere sartu dute. Sua gainean egiteko dauzkaten losa aundi batzuekin, orain alkiak egiten dituzte. Nunbait erriak basoetik diudua ateratzen du ta gizase-



Gure mendietako errietan oso oituzarra zarrak gordeak daude: Zubietan, adibidez, Zanpantzar ori.

(AIDA Argazkia)

meak bazterrak apaintzen alegintzen dira.

Eliza ikustera joan giñan. Oso garbia ta apaindua arkitu genuen. Bertako erretora alaiak on artu ginduan. 1565-garren urtean egiña da. Orduan Santa Katalinaren izena artu zuan, gaur berriz Jasokundearena. Erdian emezortzi garren gizaldiko aldare nagusi du, oso polita. Goiko irudi bat, eskubian santa bat gotikoa dala iduritzen zaigu, oso bikaina gainera. Bazterreko emezortzi garren gizaldiko bi aldaretan irudi ederrak ikusten ditugu; eskubian Errosarioko ama erdian ta goien San Anton gotiko bat; ezkerrean Karmen'go Ama, ta goien San Migel oso polita.

Erretorak bere etxean amasei garren gizaldiko zillarezko Gurutzea dauka ta Iruña'nobispadora eramana piside gotiko bat dago.

Eliza, apaizak ondo zaintzen dula garbi ikusten da. Baita euskera ere; meza ta kristau ikasbide gure izkuntzan ematen ditu.

Zubietako txoko zoragarri ontan merezi du, bere eskulanak, iñauteri berexia ta euskera aberatsa bear bezela zaintzea.

Ontan lana egiten dutenak merezi dute gure aipamena.

LATXAGA

ENE GURASOEI, MAITEZ

Agustin eta Joshepa, senar-emazteak ezkontzako urreeztaiak ospatu dituzte aurtengo sanantonetan.

Duela berrogei eta hamar urte elkarganatu ziren Uitziko Elizan.

Urre-etzaiak, apez-eta bakar direnentzat berentzat ere, gauza bakan eta bitxi direlarik; bikote edo binakakoentzat, are bakanago eta zailago izan behar. Gertakizuna ospatzekoa den ala ez, hemendik igeri!

Batez ere, senar-emazteok gordin direnean.

Ez diot Libango izaiak edo zerdioak antzo, zaharzarroan garatzeko (loratzeko) eze daudenik, ez; aski gordirik direla, ordea, hori bai, badiot. "Ainbestean ere", amak liokenez.

Beraz, zahar auen urre-etzaiak behar dute ukan, Uitziko erretore zenarenak ukan zuten arrakasta bera! Baita, Sor Katalina, Uitziko moja-etxeke buru zenarenak ukan zutena hainakoa ere!

Haatik, OROIPENetzat, erretore zenak aukeratu zuen salmu-bertso negarti honen ordez, "Dohakabea nil neure erbesteak (destierruak) luzatzen baitu"; beste salmu-puska hau hautatu dut: "Poztu gaitzen goibeldu (nahigabetu) gaituzun egunen ordez ikusi ditugun gaitz-urteen ordez". (Orixe-ren "Salmutegia" liburutik; 89-gn. salmukoa).

Bertso honekin, urte pila ederra eskatzen dut; nahigabeek daramazkikenak zerbaiz direlarik!

(Goldaraz, erretore zenaren latinezko bertsoak, honela zion: "Heu mihi, quia incolatus meus prolongatus est, Ps. CXIX, 5". VULGATIA-TIK jasoa, alegia. Egungo vulgatak baino indar geiago baizuen izan garahi hartakoak, Eliza baitan ez ezen, herria baitan ere).



Nik arestian ekarritako bertsoak, zabaltze beharrik ez du; testuaren ekaritze hutsak ene kolkoaren berri aski ematen duenez gero.

Iragan aldi gogorren lekuko bezala, ordea, amaren ezpainetatik maizegi jalkitako esaera au, altxatuko dut: "Aurrak: ezin sortua hobe, ezin jana baino".

Gaur, zoritxarrez, amaren esae-raren egia, ene gibelaren kaltetan dastaturik dut. Gu ase ezinik zen-



biltzatenean, eskas ematen zitzaigun ogiaren ordez, esaera ematen zigunak; honen EGIA ezagutzen zuen!

Aldiaren buruan, zein eskuk atera ote du esaera hori, ene osineko ondarretik? Oi gauza arrigarri!

(Aitak, "akordamena" eta "akorda-belarrak" aipatuko zitukeen izkutuaren isplikaziotzat. Harentzat, beti ez bada, gehienetan, oroitzea zera baita: laharrak eta uzten duten ozken gogoratzea).

Iragan aldi beltzaren gainean, aldiaren beteko estalkia heda dezadan eta, berein ordu eder eska!



Orixe-ren aipamen bat. Baitakik jakin, Orixeren bizitzako zernahi gertakarik, gure ama pozez beteko duela. Nahi luke, eskolan batean ibiliak izanez gero!

"Nere zartzaroa errikitan ugari", Bibliako bertso ondoren, hau dekar: "OTOITZA, OTOITZA, PAKEAREN AMA, NERE SENDA BIDE, INDAREN ITURRI!"

(Uitziko eskoletan ibilitako beste nork, idatz ote zezakeen bertso horberik?).



Nunc dimittis. Orixek beretzat esan zuenaren bidez, emango dizuet "nunc dimittis" kantuaren berri.

Honera aldatzera nohana, idatzirik zuen behin lako samigeletan gure sukaldean izan zenerako.

Lehendik ere ezaguna zaizuen Nikolas-en: "Jainkoaren Billa" liburitik, hartzen dut.

"Nunc dimittis", oraintxe, bai, pakean uzten nauzu, Jauna, esaten dute kristau askok bizitzaren azkenean, geienik opa zuten zerbaiz gertatzen zaienean. Oraintxe, bai, esaten dek nik ere, nere amets aundietako liburu au ia-ia bukatutik ikustean. Ara azkeneko mugarria. Ia-ia ikutzen dut.

Oñaze, zorabio ta nekeen artean egiña det, zuti bañon oiean geiago egonik. Une batean, bizitzeez oso etsia egon mintzan. Gizonaren adiña bete det: irurogei ta amar urte **dies hominis septuaginta anni**. Birtartean, zenbat adiskidek eta lagunek eutsiazi diote nere biziari, bai otoiizekin, bai lurreko laguntzarekin. Eskerrik asko guziei, eta egin dezatela berriro otoiiz, lenbailen zerrura nadin".

Orixeren pasarteak, eder baiño aderragok, aski eskolatuizanen zaitue, **nunc dimittis** kantuaz.

Zuen **nunc dimittis** kanturik ba ote den, eta izanik, nolakoa ote den-eta aztartzen. Ez naiz asiko. Ala ere, badut susmo, maitasunaren erpin eta punta bezala den ezke bat, elkarrentzat eginik ez ote duzuten. Zera esan gogo nuke: bizi-laguna bere aurrekoen bizi-lekua bakan joana dadinean; **nunc dimittis** kantua ematea pentsatua ez ote duzuten. Maitasunen maitasuna!

Guk, zuen aurrok, Salmutegiatik hautatutakoa opa dizuegu bihotzez: "Portu gaitezen goizeldu gaituzun egunen orde, ikusi ditugun gaitz-urteen ordez".

Azkenik, eskerrik asko, ama, esne-bularrik jorienaz hazi eta, euskaltitirik oparoenaz ase-bete ginduzulako; baina, eskerrik asko batez ere, Bataioak irazeki zigun kristau-feder-garratxoari (galdatxoari), zereaz, babes ematetik atertu ez zeralako.

Gu, hamar garratxoon erdian (aitarekin hamar), garra madul zu; gu, su egur-xehe hauen ondoan, bagoenbor, bonbon su-garretan dirudizula!

PREMIN IXURKO



Iñauteritan, Zubietako neskatxak salda banatzen.

(AIDA Argazkia)

AIZPARIK NAGUSIENA

Beti maite izan dot Naparroa, Euskalerriko aizparik nagusiena. Antxiñetan uste izan neban Iruña'n, Euskalerriko uri nagusi antxiñetakoenean, izan bear ebalu Euskalerrri guztiaren Teoloji Ikastetxe bat. Apaiz guztiak alkar ezagutu ta danen artean euskaldunen gogo-bardin ta bakarria azaidu ta landu egin. Orain ere uste dot euskal goterki-Obispadu guztiak Iruña'ko Gongotzaiñagaz-Artzapezpikuagaz alkarturik egon bear leukela, eta ez orain bezela Bizkai ta Araba Burgos'koagaz alkarturik egon. Ba, gu guztiok Erri bat eta izate batekoak gareala. Zaiñtan Naparroa'ko lurraldeak arakatu ditut. Ta biotz-poz andia artu ibiltaldi bakoitzean, bertan ikusirik edestirik andiena. Or sortu zan, ba, euskaldunen lenengo erresuma. Or jakituria, bertan Kristo'ren ezaguera. Or ertiarte; bertako uri, erri ta baserriak garbi ta txukunak; mendi ta basoak ikusgarriak; lur zabal igaliñsu ta aberatsak. Ta azkenez, gizonak mardul ta zintzoak. Orain ikusten dot esnatuaz doala Naparroa ta bere izate goragarria biztu ta indartuaz. Euskalerrri Naparroa barik gutxi da. Naparroagaz ohoregarria. Orra or orain urte bi bertan nenbille!a asmatu neutson olerkitxo:

NAPARROA'RI

Naparroa, Naparroa, zugana ni nai ta naiez. Nork naroa?	Aralar'ko mendi-goia ospetsu da, Mikel dala zañdaria.	Oliban ta bai Zangotza'n Eunate bai ta Urdax'en zeru eztitan.
Euskal odol bero-berok bultzaluta zureganuntz euskaldunok.	Xabier da, ezpai barik, kristauontzat andiena guztitatik.	Muskaria'n ta Lizarra'n eleiz eder ugariak bazterretan.
Zugan egiz sorteria, euskaldunak zorionez or abia.	Erribera, gariz, mastiz, ugaria igali ta, gizon argiz.	Iruña-uri nagusiai? Txapela ken, belauniko, itzal berai.
Zugan mendi, baso aundi, etxe polit, erti eder ta Edestia.	Baztan-alde udabarri, arlanduzko etxeakaz goragarri.	Parka, beste napar lurrak, Danak eder, danak bikain, bardingear.
Auñamendi'n gogor gudan zure gizon Euskalerrri'n alde-lanean.	Muskilda'ko Andre Mari menditardean Erregin da, maitagarri.	Pozatzen naz ikustean euskal giro sartu da, ba, Naparroan.
Otoi-toki, jakin-lanak, Orreaga'n, bardin Leire'n lekaideak.	Irantzu ta bai Olite antxiñako edergaiak, begi-bake.	Biana'ko Printzea'gaz, Kili-kili, ikastola: anei eraz.
Otxagabi'n Ronkalean bazter polit-zoragarri dan-danean.	Napartarrak lenen lenen Kristo'n otsein biur ziran ¡Aien kemen!	Bizkai'tik nire agurra, aintza zuri, gora beti, Naparroa!

GALLASTEGUI-tar KAULDI

BERTU

AMA EUSKERA

Gue eztabaida iñozoetan gabiltzan bitartean, euskera amak dei dagisku, ezti ta samur, zentzuzko batasunera.

Ama on batek sendian dauko ardurazko zeregiña, dakialako bere aurtxoak daukela aman premiña; ikusten badau ezin dabela lortu sendi atsegiña, oso mingotza izan bear dau amagan dagon samiña.

Ixiltasunez eroango dauz sendiko lora arantzak; aman magaliak asetzen ditu seme-alaben biotzak; amagan dagoz famili baten maitasun-bakezko gijtzak; errukariak izaten dira ama bako umezurtzak.

Erri bat daukat, bere ama naz, semeak ditut ugari; amak maite dauz, baiña semeak igeska dabiz amari. Ardura aundiz begira nago euren etorkizunari: ama galtzean zein izango dan nere umezurtzen gidari.

Zuek zarie nire jarraiko amets gozoen baratza; ondo badao, zuen frutuak indartuko dau emaitza. Batasunean dago indarra, indarra dogu garaitza: euskeraren batasuna da eusko lurraren bizitza.

Ene semeak, batu zaitzeze, oroiu zeuen amagaz, niregan beti izangozue erri bizitzaren arnas. Ni ilten banaz, ez didar egin, ez da erantzunik nigaz: semien erruz, neure lurrean, betiko ixildu naz.

E. B.

- ALAITASUNA -

Alaitasuna, bai, biziaren gatza;
alaitasuna, egiazko bizia;
geza baita alai ez dan guzia,
eta ituna bizirik gabe datza.

Alaitasuna, gogoaren yorana;
alaitasuna, gozatzeko ezti;
mingotza baita itun-gabezia;
biotza zearo urratzeko dana.

Alaitasuna, gizadian irriño;
alaitasuna, lillurazko ametsa;
beste oro izanik uxa ta ezetza,
mukerturik eta aspertzeraño.

- 1) Asteko da eguna goiztirian; argia edatzen da zabalean; lenengo ditzirak ager, alaitasunean. Eguzkia urratsez-urrats; eldu arte eguerdiko egurats; alaitasunezko istatsu ta aratz. Beruntz doakigu eguna; iritxi baño len illuna; giroak duelarik alaitasuna. Gabaren altzo dalarik sakon; izarrez beterik, ba-dirudi Gabon; alaitasunaz, arreba, zegon.
- 2) Ozkarbian gardentasuna; eguratsean, gentza ta lasaitasuna; aitze dantzarian, alaitasuna.

Ortzantzearen ditzira; goiko izarren ñir-ñira;
alaitasunezko zirurika-bira.

Mendi bera latsaren marmarioa; arri kokorren gañetik doa; abeslari alai txirristaka eroa. Itxasoaren zabal oziña; bare-bareturik ugiña; alaitasunezko gorabera egiña.

- 3) Landareen altxumak; udaberrian, zelan sortuak; ezetasun alaiez erreminduak. Muskillak loreturik; zein berez loreturik; margo bizi alaiak zabaldurik. Lilien oso edergallu; orlegiz, eder, jantzirik ostallu; orri-osteo oro, alaiakiro jostallu. Umotu igaliak ondoren; lurrin gozoena emoten; alaiak gozatzeko, aomen.

- 4) Txoriñoen egazka; tatez-taez lurrean jauzka; poz-alaiaren txorrotziozka. Usakume apala; usategian, bai, mazala; alaiturik beti urruma dala. Txito-alde pio-pio; ama-olloaren ondorio; aien alaitasunezko txio. Tximeleta egalari; lorez-lore doa milizkari; zoroki alaituta ibilkari.

- 5) Antxumeak ikotika; ari dira oro jauzika; alaizurrian eta punpa-irrika. Bildotsak erabat xalo; kizkurrez beterik, potolo; alaiak beeka, ama-zulo. Katuxuen, ura isia; eten gabe itzuli-mitzulia; alai arrapatzen araiakia. Untxitxo dago urduri; tente-tente belarri; alaitsu dabilleta jostagarri.

- 6) Aurra guziz irriño; amaren, nola, maiteño; altzoan alai, oso gaiztoño. Gaztea tontoretan; irrintzi ta santzoetan; barne-alaitasunez, abestietan. Neskatilla txit ameslari; zorionarengura gorulari; alaiak-alai lillurakari. Gotzona goi-goian; Jainkoaren aurrean; betiko alaitasun onenean.

Abes dezagun oro alaitasuna,
goraipatu nun-nai alai ibiltzea;
ontasun guzia bereganatzea,
alaitasunetik darion zoruna.

Izadi guzia ikusteko alai,
goi ta bean diran agertaldietan;
bizidunengan naiz bizi gabeetan,
alaitasunak beti aintzina darrai.

Alaitasunean zoriona datza,
alaitasunean ametsa jaria;
alaitasuna, biotzen pozgarria,
alaitasuna, bai, biziaren gatza.

URRESTARAZU'TAR ANDONI

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

UMETXO BATEN ERIOTZA

(Igor, nere illobaren eriotz egunean)

- 1) Naiz-ta ez dodan bertso oneikin iñor samurtzeko ustea, bearrezko da, neu lasaitzeko, batzuk idazten astea. Zori baltzean sartua zeran, nere arreba tristea: nekeok alde ta irriparrezka nai neuke zu ikustea.


- 2) Iru urte dira, belbil batean, oster bat egitean, zeure semetxo, Josu Xabier, il zala uste bagean. Sei ilabeteko aingerutxoa egan zeru zabaiean; baiñan... aurtxoa falta zenduan, laztantzeko, magalean.

- 3) ...amaren biotz minberatua!
—Zeñek osatu zauria...?
Zeñek zenbatu, gau luzietan, maiko samin itxuria...?
Seaskatxura inguratzean barriñen dan iturria legortuteko zeñek eskeiñi igesi jatzun irria...?

- 4) Eia... zauria noiz osatuko zala, berriz ezbearra; uste bagean barriñen zala eten gabeko negarra. Zure bizitzak beragandu dau atsekabeen dedarra... Gau zoro baten, semean eran, galdu zendun senarra.

- 5) Nun ete dira amets egiñak zinduzan zorun legunak? Nun... alkareri eskeiñitako opari zintzo bigunak? Len... semetxoak agur eñ eutzun ta oraiñ... senar kutunak! Ez al da au naiko ezetsitoko munduko zure egunak?

- 6) Atsekabeak bildua zaitu... Ezbearra zure jabe... Maiko ixillezko bizi laburra, eten gabeko mirabe.



Epe motzean, irugarrenez,
zure etxean deitu dabe...
Igor, lau urteko seme kutuna,
ekarriak bizi gabe.

- 7) Ta... gure Aitak zu zigortzean arizen al dau atsegiñik...? Zergaitik jarri zaitu munduan kurutz bizi bat egiñik? Zure alaba poztu egizu... Ez al dau naiko samiñik bere maiteak jarriaz gero goi-be zati egiñik...?

- 8) Nere arreba minberatua: maite aut ezbearrean, jarraitzen bai don ontasunean osotasun ederrean. Neke ta penak ba'ditun ere auen gabe bularrean, zerutar bake goxo ezti dagerkin irriparrean.

SARDUI'TAR DEUNORO



LA RIA

BASARRI'REN OMENALDIA

OROITZAPENAK

Euskalerrriak, ondo merezi zuan omenaldia eskeini dio Basarri bertsolariari, Donostiako Astorian 1973'ko Ilbeltzaren 21'an.

Aspaldian zor zitzaion omenaldia, benetan.

Izan ere, beste bertsolarien doai eta gaitasunak gitxietsi gabe, aparta izandu da, urtez-urte, eten gabe, giro txar eta onetan, abotzez eta lumaz, Basarrik bertsolariaren alde, eta bide batez euskeraren eta eusko nortasunaren alde egin duan lan onuragarria.

"...Egin dedana baño geiagorik enezaken", esaten zigun beregandik artutako eskutitz batean. Eta... egia da.

Basarri ez da oraingoa... aspaldikoa da.

"ARNAS BERRI BAT..."

"Uso zuri bat" ezpañetan zuala agertu zitzaigun 1935'an Donostiko Kursalera, gure denboretan eratu zan bertsolariaren leen txapelketara.

Eta egun artan bertan, Zarautzetik etorri zan mutiko gazte lerdun ura, egun artan bertan bertsolariaren goi-goiko erpinetara egaldu zan.

Ez bakarrik abotz zolj eta patxara ederreko bertsolari jatorra zelako, baiño baita ere, eta bereziki, bertsolariaren, Satrustegui esango luken: "Arnas Berri..." bat zekarkilako: eusko nortasunaren arnasa, Iparragirre ezkerotzik Gipuzkoako bertsolarietan ikusten ez gendun arnasa.

Gaurko idazkeran esan genezake, garai artako Basarri'ren bertsoak "mensaje" bat zirala euskaldunentzat, eta bertsolariarentzat, ikaspide bat.

KURSALEKO BERTSO ZONBEIT

Ona emen Kursalean kantatu zituan leen bi bertsoak: doña eta gaia aukera.

Uso zuri bat inguratu zait goizean egun argitzez; alaitasuna artzek sortu dit jaun maiteak, bere itzez eta ni orain zuen aurrean nazute pozaren -pozez lendabiziko entzule onak Agur danori biotzez.

Bertsolariak eman diote Txeko erriari gorantza. "Mireio" batek edergailutan josia zuan Provenza ene Jainkoa egin zaiguzu guri bear dan laguntza aldan azkarren sendatu zagun gaixo dan euskal izkuntza.

Bigarren gaia:

"Euskal izkuntza galtzen ari da ta galtzen bada euskera Euskalerrriko seme guziak betiko galduak gera".

Doña: Pedro Mari Otaño'ren "Limosnatxo bat".
Ona Basarrik gai ontaz abestu zituan iru bertso:

Itxas ertzetik entzuten dira ama euskeraren ansiak ta bai dirala egun trixteak ene!, bai negargarriak. Nola kanpoan aña etxean nun-nai ba-dauzka etsaiak au oldoztuta malco trinkotan betezen zaizkit begiak bera iltzen bada, ez du askorik paltako Euskalerrriak.

Entzun zaidazu gizonezko orrek entzun, emakumezkoa ikur aundiak agertutza ez da izango naikoa ara nolatan mintzatzen zaigun gure Jauregi zintzoa: "Euskalerrria euskerarik gabe bai dala Erri gaixoa".

Galtzen badegu gure mintzaira galdua dago guzia esaidazute, anai-arrebok, ez al da lotsagarria? Irakasleak bezela daukat nik ere aitoru naia au esanikan joan zitzaigun gure maisu aundia: "Il naiago dot ikusi baiño Aberriaren amaia".

LENGOA ETA... ORAINGOA

Ordutik, au da, 1935'an Donostian egin zuan agerlditik asita gure gerla denborarte, zenbat eta bertso eder ez zituan, an eta emen, Basarrik kantatu...!

Zenbat jende loriatu eta eskuzarta entzun...! Tamala garai artan magnetofonik ez izatea, bertso zoragarri aiek jasó eta gordetzeko! Batez ere goguan dauzkagu Enbeita, urretxindoraren doñuan abesten zituanak; askotan eta askotan entzuleak etzioten bukatzen uzten, iragartzen bai zuten azkena eta txalo beroekin estaltzen.

Ura zan, ura... benetako Basarri...!

Gaurkoa..., dauzkan bertsolari doaiak izpi bat ere gutxietsi gabe, gaurkoa, egak moztutako arranoa da.

Ez degu guk esaten, entzun berak bein batez "La Voz de España" esaten zuena: "amaika aldiz gertatu gera gu burura etorritakoa esan ezinik...!

Zorionez! bertsolari eta eusko langille jatorrak jarraitzen du eta...! Urte askotarako izan dedila Basarri!".

Basarri, garaiean, garaiekua izandu da. Guk gazte denborako oroitzapenak argitaratu ditugu, bere nortasuna, batez ere gazteak, alik eta obekiena ezagutu dezaten.

Zorionak, Basarri! Ni nauk sarrerik gabe gelditu zanetako bat. Orduko partez, besarkada estu bat.

DR. HERNANDORENA

BERTSOLARIEN IRTERAK

Leen ere, gai ontaz, orri oetan bertan zerbait idatzi nun. Batek eta bestek esan didate orduan jarri nitun bertsolarien irteerak oso gogozkoak izan zirala ta, ia arren beste batzuk jarriko ote nituzken. Bear bada, irakurle guztientzako ez dira ala izango baiñan, batzuk eskatu dizkaten ezker, berrito eltzera noa leengo lanari.



Ez dakit ba, amonaxo; emen goiko bidetik ez da pasa. Bear bada, beeko bidetik pasako zan.

LANGILLEEI ONDO KONTU ARTU

Etxegintzako lantoki bateko langileen buru edo enkargatua omen zan Txirrita. Nagusiak egun pare baterako kampa joan bearra izan omen zuan. Nagusiak, Txirrita agurtzean ala dio: "Joxe Manuel, langilei ondo kontu artu". Onekin esan nai zion, alegia, alperkerian ez egotako.

Nagusia usta baiño leenago lantokitzen da ta, txabolan, esku-erramientak gordetzen zituzten lekuan, an topatzen du Txirrita bertso jarioz iangilleek bere inguruan dituala ta zato ardoak eskuetan dituztela. Iiz batean esan da, danak antxen juergan.

Nagusiak, aserre bizian, laino beltzak baiño beltzagoko kopeta jarririk, ala dio Txirritari: "Joxe Manuel, au al-da pulamenua?"

Txirritak: Ondo kontu artzeko esan etzidazun ba?

Ementxe jarri ditut bertsozko kontuak, liburu zarretatik zuentzat artuak. Amaika ziri, orra, len ere sartuak, bertsolari ez dira sekula tontuak!

IBAI-ERTZ

STOP

Lazkau-Txiki, berebill edo automovil baten jabe da. Bein batean, bigarren mailako bide edo kamiño batetik bide nagusira irten omen zan stop egin gabe, naiz ia, bide ertzean, STOP jartzen zuan letreroa an egon. Bi motoristak ikusten dute Lazkau-Txiki'k egin dun utsegitea ta gelditu arazi egiten dute.

Inguratzen zaio motorista bat ta onek aia dio Lazkau-Txiki'ri: Ez aal dezu STOP ikusi?

Lazkau-Txiki'k, erantzun: Bai, ikusi dut. Baiñan ez dut ikusi zuek or zundetenik.

Erantzuna ain egoki eman ziolako, ez omen zion txarteltxorik (multarik, alegia) egin.

TXIRRITA LAN BILLA:

Entzuna degunez, Txirrita argiña omen zan. Egun batean etxe bat egiten ari zan nagusi batengana inguraturik ala dio Txirritak:

Egun on, jauna. Lan billa nator-kizu.

Nagusiak: Ba, aldi ontan, lan gutxierekin nabilkizu.

Txirritak: Ba, jauna, nik ez det lan askoren bearrik. Gutxierekin conformeago izango nitzake.

INSPECTOREA IKASTETXEAN

Erri txiki bateko ikastetxe edo eskola batera etortzen da inspektore bat ta ala dio:

Aurrak: Ikusi bear degu jakintzaz zenbaiteraiño jantziak zaudeten. Ia nork erantzuten didan. "Andik oñeraiño zenbat bide dago?"

Gaur egun bertsolari jatorra dan mutil koxkor bat altxatzen da bere exer lekutik eta bat batean erantzuten dio: "Emendik araiño juxtu, juxtu Jauna".

Diotenez, inspektorea izerdi otzetan gelditu omen zan.

LAIXTERKA MEZATARA

Igande goiz batez, amonaxo bat, laixterka batean mezatara omen zi-joan. Ontan Txirritarekin topo egiten du ta galdetzen dio:

Joxe Manuel —Txirrita'k ala zuan izena— zortziretako meza pasa aal da?

IZKUTUKO PAPERA



Blok batean badut egiña jazoera batzuen historia, eta da herritik erbestetu nintzanekoa, dena more kolorezkoa.

P. IZTUETA

ERDI-BIAIZAK, MUTIL

Lorea erne zan gorri panpoxa, maitasunaren larrosa...

Bion biotzetik genion ontzia presta.

Ontzia gorriz, odolez bero, amesez pil-pil...

Negua eldu otzetan ixil...

Or-irtete gutti pasata gero...

Kontuz! Ez ikut larrosa gorria; erdibi dago ontzia.

ANES LAZKAU'KO



BA AL DAKIT ZENBATZEN

Bat, bi: jantzi bat ba-noa ni.

Iru, lau, bost: atean kosk eta kosk.

Sei, zazpi, zortzi: bidean lau erbi.

Bederatzi, amar: aldean ditut bogna atzamar.

BIOTZ-BIURRI

«Bat, bi, iru, lau xaguxarrak jango al au!» Xaguxarra, xaguxarra ilunpean azti zaarra agapean lo ta lo

Argian ninian jo, akullua ostiko, argia madariko, biotzean gorroto, akerebeltzaren seme illunpean murgilko

Illunaren senide Kristok argi zinduzen jentil-baratzetik leize-illunbeetik at, aztikerietik at

Illunpera biurti, biotza biurritu !

Marx jainko-txiki guretzat!

Beste jainkorik ez da emen !

Aker-beltzak «Amen! Amen!»

Anes Lazkau'ko



PATXI ARRARAS JAUNAREN ITZALDIA



Arraras jauna, «Patxi Arraras» esaten dugunez, oso gizon ezaguna da euskal dantza ta euskal «folklore» alorretan.

Dudarik gabe, gai ortaz jakintsu andia dugu; ongi egin du, orduan, napar Diputazioak PRINCIPE DE VIANA izeneko Elkargo-ra Arraras jauna izendatzean.

Donostian eman zuen mintzaldiaren ondotik, txalo asko jaso ditu gure lankide on orrek; aien artean, Patxi, artzazu gurea!

Joan dan Martxoaren 15'an Donosti'ko Erriko-Etxean Batzar Gela Nagusia, itzaldi atsegingarri bat egin zuen Patxi Arraras Jauna'k. «Baztan'go «folklore» izan zen bere gaia.

«Goizaldi» taldeak antolatua izan zen bere 25'garren urteburuan.

Donosti'ko Alkate Jauna, Gipuzkoar Diputazio'ko Lendakari-orde Jauna, Baztan'go Alkate Jauna, «Goizaldi» taldeko Lendakari eta bere Batzarreko lankideak maiburu ziran. Mintzalariak, lenengoz Baztan'go lurraldea auzpeltu eta goratu zuen, bere euskaltasuna eta Naparroan beste araneziko bereixtasuna ikus-araziaz.

Baztan'go dantza mota guztiak Patxi Arraras'ek adierazi zituen eta une berean Arizkun'go txistulari ta dantzariak urratsez-urrats erakusketa ematen ziguten.

Erriko-etxeko Gela Nagusia betetzen zuen gendetzak; arreta aundiz entzun zuen, Patxi Arraras'ek Baztan'go erri-jakintzaz etera zuena.

Ango ikas naia ta an ikusten ziran magnetofon tresnak itzaldi ta soñu zoragarri aiek leialki jasotzeko! Patxi Arraras'en itzaldiak oso arrera ona zuen; azkenean ben-benetan txalotua.

Gizon ospetsu oneri gure zorionak eta «Goizaldi» talde antolatzaileari ere bai.

ENTZULE



NAFARROA GIDARI

Aurtengo otsaileko alean Nafarroako Foru Diputazioak euskararen alde argitaratzen duen PRINCIPE DE VIANA (Bianako Printzea) aldizkarian, oso informazio on bat dator, bertako Diputazioak 1972-eko abenduaren 15ean harturiko eta 1973-eko urtarrilaren 10ean publikaturiko akordioari buruz, hartan euskararen irakaskintzaren aldeko pauso irmo batzuk agertuz.

Honen berri zehatza nahi duenari, aipatu aldizkaria irakurtzea gomendatzen diogularik, hona hemen, hitz gutitan, zertan den Nafarroako Diputazioaren erabaki ofizial hori.

1.—Nafarroako ume euskaldunei Eskolaurreko Heziera eta Oinarrizko Irakaskintza Jenerala euskaraz ematea.

2.—Nafarroako irakastegi guztietan (berezi euskaraz egiten den eskualdeetan) euskara irakastea, eta erraztasunak ematea, euskara orain egiten ez den lekuetan irakastera bolutario utziz.

3.—Diputazioak horretarako behar diren erakundeak eta arduradunak jarriko ditu, bai eta laguntasunak ere.

Geure xaloak eta eskuzartak Nafarroako agintarientzat. Hori duk hori Herri nortasunari egiaz eustea, eta ez hitz alferrak esatea. Nafarren arraza, dakusagunez, ez dago ez hilik ez lo, eta bai beste batzuentzat eredu imitagarri galanta.

ARMENDARITZ
("Anaitasuna"-tik artua)

Bilbon publikatzen dan publikazio ortan publikatu diren berbak, txaloka artu ditugu Naparroan.

Eguneko gertakarien poetak: Etxamendi eta Labeguerie

Ixiltasun luze ondotik, Michel LABEGUERIE bere semearen abotzaren bidez berriz etorri zauku. Enekok su ta kar kantatzen du. Michel LABEGUERIE poesia eta mezua estimatzen dituztenendako ustegabeko hau ongi etorria da bihotzez. Azkenean bere diska berria badugu. Diska orren beha izan gera aspaldi danik: NAFARRA. NAFARRA kantu hortan Nafarroaren misterioa eta trajeria agertzen zauzkigu. GAU ILUNA-n esperantza sortzen da. PARISEN ETA MADRILEN gaurko gertakaria zart egiten du. Olerki zoragarria gose grebetez goxo eta indartsu.

Egun hauetan ere Eñaut ETXAMENDI bere hirugarren diska agerazi du: ZUTIK. Jadanik JOSEBA. ELOSEGIRI diska horrek arrakasta izigarri du Euskal Herri guzian. Gerroztik, joan den abuztuan, TIKI-TAKA atera da. Honek ere ondorio aundi bat baitu. ZUTIK-en ETXAMENDI ETA LARRALDEK kantatzen daukuten bere arima eta bihotzaren indarrakin. ZUTIK MUTIL-en arimaren indarra sentitzen dugu gure herriko gertakari mingarrian. LEKETOLO OTOITZA-n aire zoragarri horiekin lilluraturik gelditzen gera, baita bere amodioaren mezuakin. IRAULZALARIA-n ikusten dugu ihar-dokitzale idealista, bere amodioaren eta aberrieren hitzkoa.

Bi diska hauek izigarri ederrak dire, eta plazer haundiakin entzuten ditugu airea bai eta mezua. Mil esker LABEGUERIE aita eta semea. Mil esker ETXAMENDI ETA LARRALDE. Segi aintzina!

BERRIAZALEAK

EUSKAL ERRIKO LEIOA

IPARRALDEAN
AUTESKUNDE

Paris'a Diputaduak bidaltzeko, Iparraldeko Euskalernian izan diran auteskundeean, onela gelditu dira: Lenengo biran, ICHAUSPE (gaullista), euneko 49; LABEGUERIE (erdizale), euneko 31; LOUGAROT (sozialista), euneko 15; BLASQUIZ (comunista), euneko 4. Bigarren biran, INCHAUSPE gelditu zen irabazle.

«NABARRA»
ITXASONTZI BERRIA

Il onen lenengo astean, Bationa-ko kaiean uretara bota egin zuten atuna-arrantzako itxasontzi berri bat. Bere gisakoetan, andiena; aurrerapen denak ezarri dizkiote —aitze otza ta guzti—, ta beste urrutirako itxasoetara joateko egokiena.

Bere «bataioan» NABARRA izena eman diote; eder izan zaigu beste aldeko anaiak egin dutena.

«SANTXO AZKARRA»
PASTORALA

Zuberoan, Altzai irian, «Santxo Azkarr» izeneko pastorala gertatzen ari dira, Apirilaren 29-an emateko. Da-

kigunez, Zubero'ko euskal antzerki berezia dira «pastorala» oriek.

NEKATZARIEN ALDE

Azkeneko aldi ontan erremolatxa beeruntz dijoalako, Naparroa-ko Diputazioak laguntza batzuek ematea erabaki du. Laguntza ori aziak, ongarriak eta gañerako bearrak ematea izango da.

Naparroa-ko lurgintzarentzat berri on bat dela uste dugu.

EKINTZA BEREZIAK

Azkeneko Batzar Nagusietan, gai bereziak ibil-arazten ari dira gure Diputado Jaunak; besteen artean: Belagoa-ko negu-tokia, Naparroa-ko lur-gaien mapa; Teleikuskiña, Noain-go egazkin-zelaia (Aeropuerto), eta abar.

ERRI APAINDUEI SARIAK

Gure Naparroa, geroago ta «ikusgarriago» izan dedin, erriak apaintzen alegintzen diranen artean sari ugari banatzen ditu Diputazioak. 1972-ko urtean sarituak, auek izan dire: Auritzperri erria (Espinal) eta 125 gizon-andre. Bost apaiz ere sarituak izan dire beren lanengatik.

«SANTA AGEDA»
TALDEAK

Bendidanik Bizkaian eta Araban, baita ere Gipuzko aldeko toki askotan «Santa Ageda» kantari taldeak oso ongi sartuak dira yendeen biotz eta zainetan. Beste Euskal Herriko zenbait lurraldeetan ere, hala Nafarroan, bere gisako oiturak ere aintzinatik badituzte «Santa Ageda» delako honen oroimen eta ohorez. Gure Nafarroan «Santa Ageda» kantari Taldeak, Bizkaiko eraz apaindu eta bere kantu bereberekin ere, orain amabost urte edo asi zirela agertzen. Gure Iruñean gero eta indar gehiago dute,

eta orain Nafarroako Hiri Buruari begiratzen Lizarran, Tafallan eta, era berean «Korruak» atera dira bere euskal oiturei kaso eta aurpegia ongi eman beharrez. Badakigu beste Nafarroako herri askotan eta beren bereziko oiturei jaramon ekiten, hau da beste gisara, «Santa Ageda» ren bezpera ospatzen badakitel: Leitza, Urdiain, Altsasu, Arroniz, Goizueta, eta, eta.

Iruñeko «GAZTEDI» Elkartek nere ustez izan da aurtan Iruñeko karriketaren zehar yaun eta nagusi «Santa Ageda»-ren bezpera bere kantuekin gauzak xarmanki egiten.

IKUSLE



ERRIZ - ERRI

GORRITI

PAKITA ALDUNZIN IL ZAIGU!



Martxo onen 9'an Aldunzin'dar Pakita izeneko anderea, Jaunak Bere aldamenera eraman digu, laurogei ta bi urtekin.

Ura zan emakumea; elizkoia, euskaltzalea eta oso langillea. Errria betetzen zuen!

Elizkoia: bere denboretako elizkizunetara erantsia zegoen. Erlijioan arkitzen zuen bere bizitzako sufrimentuak eramateko indarra.

Euskalatzalea: zintzoa eta euskal-irakurle amorratua. A zer adibide ederra eman digun Pakita'k gorritiar eta euskaldun guztiei! Beti bere eskuetan liburu eta aldizkariak. Eta nondik zaletasun au? Pakita'k anai apez jator bat bazuen eta bere ondoan gure Euskalerrria ezagutu ta maitatu.

«Principe de Viana» aldizkaria irakurriaz jakiten zituena Naparro'ko erri geienetako gora-berak. Azken urte otako kezkiak aundienak Ikastola'k ziren. Kezka oek, Sastrustegi Jauna'k sartu zizkion, bere idaz lana «Aingeru txuriak» irakurri zuenez gero.

Erriko jostuna zen eta oso langillea. Gorriti'n ez da gizonik Pakita'k jositako galtzak jantzi ez duanik.

Atsekabez beretik utzi gaitu, baña Jaungoiko'aren naia onartzen degu ta emen lurrean arkitu etzuen zoriontasuna, zeru eder ortan arki dezala. Bitartean emen gelditzen geranok ikasi dezagun bere bide argia.

GURATZ

AZAKIXKURRAK

Betor gure artera pozik elexarra; danok daukagu eta beraren beharra, urrutzeko gugandik barneko negarra, pizteko gutartean pozaren izarra.

Aurtxoari, lenago, amonak ipuiak; izketan iartzen zitun axeri, xoriak; aipa zitezken ere otso ta ardiak orotatik ekarriz oharpen argiak.

Ametzlari zuen len aitona burua eta biotza zeukan onnahiz sutua; tinko gidatzen zuen billoben zentzua, gertatzekoan argi iarriz gertatua.

Aitona ta amonak, bizitzaren zehar, ibiliak zituzten nahiko bide mehar; billoberri zieten erakutsi behar elexartxoan bidez zer utzi ta ze ar.

Ago-xilora zeuden billoben begiak erne-erne zeuzkaten ere belarriak ttipitatik baizeuden hortara iarriak, gogoan ongi artu nahiean ipuiak.

Bizitzak berekin du latza ta nekea; alferrik da huntatik iges egitea; bazekiten lengoek hau dela «gurea»: elexarrez bilatzen zuten eztitzea.

Ametsekin nahaste Egia diozuna! Famili osoaren lokarri lehuna! Elexar mamitsua, aurtxoan laguna! Eztitzale goxoa, gaur falta zaiguna!

Ezagueran sartu orduko, gaur, aurrak iakin bakarrik zenbat balio dun lurrak? Balio horren bilan austeko ezurrak? Bihotza nastutzeko diruzko gezurrak?

AZAROA

SUNBILLA

Joan den igande Otsailaren 18-an egun gogoangarria Sunbilla'ko «INTXITXU» antzerki taldea eta Agirre eta Mattin bertsolariak ari izanak direlarik.

Besta hau Sunbilla'ko Eliz berritzearen laguntzarako izan da. Eliza zaharra ederki konpondu dute orai argi eta garbi agertzen zaigula, hortarako herritar guzietan zaletasun haundiarekin lagundu dutelarik. Jende aunitz Sunbilla'ko frontoiean eta denak kontent eta bozkarioz beterik bertsolarien eta antzerkilarien eginkizun zoragarriekin.

Agirre eta Mattin bertsolari famatuak berek dakiten bezala bertso jostakin eta atsegingarrietan ari izanak dira, entzule guzietari agurtuz, Sunbilla'ko Eliza aipatuz, sunbildar jendea goresiz eta gai-emalearen aginduak zoragarriko bertsoetan kantatuz. Oiertzun-go «INTXITXU» taldeak «ARALAR» izeneko Pastural gisako antzerkia erakutsi ziguten, Goñitar Teodosio zaldunaren kondaira ederki agertu zutelarik. Oiertzuar teatrolariek Pastural honerik ematen dioten bizia guziz hunkigarria da, euskara herrikoa eta garbia darabilkitelarik eta hortaz gainera kantua, dantzak, elkar-izketak eta antzerkiari ematen dioten bizitasuna zinez gustagarriak dira «ARALAR» kondairari ohore haundia egiten diotelarik.

Pastural izeneko antzerki hoiek Zuberoan sortu dira hango Pasturalak ospe ta arrakasta haundia dutelarik, ikusgarri hoietan Euskal-Herriko kondairak eta gertakizunak agertze dituztenak eta garrantzi handikoak. Orai Oiertzun'go «ANTXITXU» TALDEA hasi zaigu lantegi hortan eta merexi luke kontuen hartzea, Nafarroa'ko herri haundixkoetan Pastural hoiek erakutsi behar lirazke jendea ohartu dadin euskal teatroak zenbat balio duen eta zer mesede egin lezaken gure herriaren kulturari.

Gure Diputazioak asmo onak ditu gure Herriko euskal-kulturaren alde ahal den guzia egiteko eta euskal besta hoiek, antzerkia, bertsolariak, ikastolak eta abar Diputazioaren babesean daudelarik eta eragozpenik ez izatearekin lotu gaitzen lanpide hortara gure Herriaren kulturaren alde gure sorlekuaren nortasuna gorasko joan dadin.

Zorionak Sunbilla'ko jai horren antolazaleari eta gure goresmen bizienak «INTXITXU» antzerki taldeari.

ANZANARRI

AIZKOLARIAK ETA PELOTARIAK

Behin eta berriz Tolosa-ko plaza izan da aizkora apostu haundi baten lekuko. Joan den Otsailaren 18-an ari izanak dira buruz-buru eta zein-gehiagoka Arria azpeitiarra eta Latasa sunbildarra bi euskaldun aizkolari famatuak. Aizkolarien eginkizuna: Arriak 21 egur kana-erdiko eta Latasak 20 negurri berekoak. Biek batean hasi eta onbor guziak zeñek lasterrago erbiditu. Gure euskaldeko gizonek Latasa-ren baitan uste osoa zuten eta jokoa hasi aurretik trabesak ere haren alde «Ehun irurogeiri» ohiu egiten zutela. Lanean asi orduko Arria gazteak agertu zituen bere indar ikaragarriak eta trabesak berehala itzulikatu ere, orduan «Ehun berrogeiri» azpeitiarraren alde jarri zirelarik. Arriak lenbiziko onborretik aintzinaldia hartu zuen eta gisa hortan 21 egurrak moztu arte, apostua airez-aire irabazirik eta Latasa oraindik 15 garrenean ari zelarik. Azpeitiarra ohore guzietan irabaztale.

Urteak ez dute barkatzen eta zaharrek gazte sasoikoaren aurrean burua makurtu behar. Beti badira Jaunaren Jaunak!

Arria irabaztaleak 21 egurrak 76 minutu eta 30 segundutan erbiditu zituen. Marka hortan ageri da egurren zailtasuna, zeren samurrak eta beratzen gertatu balirezke, azpeitiarrak 55 minutu askiko omen zituen lan guzia bukatzeko. Latasak zauken egurra aukeratze-eskubidea eta hortan uts egin zuen, egur samurrak aukeratu beharrean zallak aukeratu zituen eta hoietan leher egin.

Basarri jaunak «Zeruko Argia»n egur hoietaz hau esaten du:

«Bi gizon ikusi genituen lanean gogor eta bulartsu. Etziruditen ordea egur gainean aizkoran ari ziranik, txingurearen gainean mailluketan baizik. Egur itxura baiño burni itxura geiago zuten Tolosa-n ebaki ziran puskak».

Basarrik garbi aski adierazten du aizkolariak nola jokatu ziren. Horrek badu merezimendu.

Arria-ren adina 27 urte. Pixua 98 kilo.

Latasa-ren adina 43 urte. Pixua 82 kilo.

Arriar-ren lana:

Bost kana-erdiko: 14 minutu eta 4 segundu.

Ama kana-erdiko: 31 minutu eta 48 segundu.

Amabost kana-erdiko: 51 minutu ta 23 segundu.

Ogeitabi kana-erdi: 76 minutu eta 30 segundu.

Latasa-ren lana:

Bost kana-erdiko: 22 minutu tan.

Amar kana-erdiko: 46 minutu ta 42 segundu.

Amalau kana-erdiko: 69 minutu ta 53 segundu.

Hasi zen amabostgarrenean baina orduantzen Arriak lanak bukatu zituela ikusirik, Latasak utzi egin zion lanari.

Zorionak bi aizkolari, bai irabaztaleari nola galtzaleari.



Igaz bezala aurten ere badugu Pilota Txapelketa eta erran beharrik eztago aurtengo honek ere arrakasta haundia izango duela. España-ko esku-huskako pilota Xapelgo hortan ari beharrrak diren pilotarien izenak hauetxek dira:


Lenbiziko maillakoak. RETEGI TXAPELDUNA, Bergara, Erostarbe, Orexa II, Tapia I, Nalda II, Arruabarrena eta Arroyo.

Hiru nafartar, hiru gipuzkoar, errioxatar bat eta arabar bat.

Bigarren maillakoak: Arozena, Urkiza, Gereñu, Etxarte, Gorostiza, Maiz eta Aizpuru.

Irakurleek lerro hauek irakurri orduko Txapelketa badoa bere bidean eta urrengoan agertuko ditugu partiden gora-beherak.

M. IZETA



IKASTOLARI BURUZ

Azitik bihia; atzoko sutondoko euskeratik gaurko ikastolak.

Zeren, euskera amatxikin zenbait solas goxoen erabiltzeko bakarririk baldin bada, bereak egin du. Aspaldi zioen Bernat Detxepare gure lehen idazle haundiak: "Euskara! Jalgi adi kanpora, plazara, dantzara, mundura!". Agudo eta sakonki zen Eiheralarreko erretor olerkaria euskeraren bizi-baldintzari ohartu; XVI-gn mendean.

Gaur egun, bixtan da, baldintza hura aunitzez premiazoagoa da; ezinbestekoa. Euskera zaletasuna, nehoiz izatekotan, gaurko moldetan obratu beharra dago; gaurko bidetatik abiatu.

Bide horietatik bat, nagusienetik, eskolategiarena da. Ezibidetan itsasten ez baldin bada euskera zail da biziko, hil urren da. Hortik ikastolak sortzeari ematea. Gure iraun gogoaren adierazpen garbia, abots ozena.

Bestaldetik, negargarria da gure buruz lotsatzea gutartean, zorritzarrez, oraindik gertatzen den bezela; bainan, egia erran, ez hain arrigarria. Hainbat denbora euskera baztertua non gure gizartea muinetaraino ahalketurik baidago, nortasuna galduea...

Bainan ez osorik. Dakusagunez, bazegoen azirik; bazegoen surik. Hor daude, lekuko, Nafarroako ikastola lerdanak. Nork erran duela amabots bat urte loratuko zirenik? Bazegoenik ere gogo eta borondate ahalmendunik? Batzuk ez uste, eta ez nahi.

Zorionez, gaur artio ia umezurtz gisa ibilli eta gero, agertu zaio euskerari aterbe egokia, oienarri sendoa: Diputazioaren itxaropeneko azken erabakia. Asteakotz, ez da makala ofizialtasun doi horrek euskerari eman dezaiokean indarra; ez horixe. Hala ere, aurreko lumeroan hementxe bertan erraten zen bezala, euskeraren aldeko erabaki hori bide zelai eta ezinago lagungarri da, bainan bidea, geuk ibilli behar dugu; erabakiak mamitu egin behar baidira. Berantsko ote? Guri da erantzuna.

Azitzako loreak, beraz, irabazi du eguzki bizigarriaren fereka. Bainan ekaitzak ez dira ematu, ez eta gutiagorik ere. Betikoaz landa, ikastolak azten joan diren arauera, itsasi zaio errotik belar tzarra.

Erabat garden eta sendoak zirelakoan ginauden, bainan gutien uste genuelarik, horra gure alorra abantxu zikinak jana. Gazurra badirudi ere, betiko oldarraren itxura berritua gure zenbait alorretan garai. Dugun ikus.

Batzuk, aitzaki-maitzaki dena on ikastolak ankar gora uzteko. Borroka-bidetaz gure egoeran sinestu eta onartu ezin diren arazoak plazaratzen dira: "h" delakoaren gerla, erlijionik eza, "akatsik gabeko" pedagogia, eta halako beste; auziak illargitara eramanez beti, naski. Ez bariduri ere, honen azpian atzerakoikeria ertsia izkutatzen da.

Denok badugu joera horren berri, bainan maizegi ohi gara, zorritzarrez, bere saretan erortzen. Atzera joanez, iraganikako moldetara joaz, ikastolak "h"-rik gabekoa eta ertsia izan behar duela erranez erantzuten baldin bada, jokoa baizik ez baizaio egiten beste. Lehenbiziko joeraz ez baidu erantzuntzat bigarren hau baizik billatzen; elkar dute osatzen elkarren betegarri izaki. Aspaldiko txanpon beraren aurkia eta girbiñe, hain zuzen...

Eta itzul gaitzen lehengoari buruz. Ez da sobera sakondu behar gauzak hala emanik zer gertatuko den konturatzeko: ikastolari azpia jaten zaio, ezinezkoa bilakatzen da eta, finean, errekarra du jotzen, Helburu bakarra hori da.


Ikastola batez dituen korapillo latzak, kanpokoak zein barrukoak, xuritzen joan behar dira, arazi denak izanen dira arazo nagusiak, dudarik ez, bainan ez ikastola bera baino nagusiago, naski. Ikastolarik gabe ez baidago dagokion bestelako arazorik. Gure jokabide desberdin guztiek, beraz, ikastolaren aurreratzea, obekitzea behar dute helburutzat izan; gaur izaten ahal diren ikastola konkretu eta kutsatu bakarrak (ez gure erruz alanzankoa!). Alde dagoenak orai eta horien alde erakutsi behar du, ez ametsezkoaren. Gainerako itz jario guztia gezur utsa da, faltsukeria besterik ez; nahiz euskeraz eta sasi-aurrerakoi itzez ornitua agertzen bada ere.

Urliak gure herri hau ez ote den ero-etxe haundi bat bihurtu erran zezakean, eta arrazoi puska bat baduke. Puska bat diot, hau dena ez delakotz ustegabetan gertatzen, "zerbaitengatik" baizik; badu bere zentzua, alafede.

Helburua garbi dago, bai eta erabillitako bideak ere. Guri da orai, zer nahi dugun jakitea. Hala jarraitzea ala baratza garbitzen ahalegintzea. Nahiago genuke amets txar bat balitza afera hau dena, bainan zorritzarrez ez da hala; eta itsuarena eginez ez dugu deusik ere konponduko, eta bai gero eta makurrago gertatuko. Penagarria da, bai, bainan bizitzarik nahi baldin badugu ez dago aukerarik.

Orduan bakarrik da berriz ere emankor bihurtuko azia.

ANKO SENDOA



Euskeraren itxaropena dira gure ikastolak
(MENA Argazkia)

ELE = MELE

ETA LAUGARRENA?

Bigarren mailla. Marrakzi (dibujo) eskolan. Gaia: "Ejipto-ra igesi". Txomintxuk egin du bere lana: lau lagun dijoaz egazkin baten; iruk argi-koroia daramate, laugarrenak ez.

Maixuak zerbait arrituta, diotsa: "Familia santua, bai, ezagutzen dut; baiña, nor dugu laugarrena? Txomintxuk, bere aldetik, maixuaren jakin-ezaz arritzen da: "Ez al dakizu? Ori Pontzi, pilatua duzu".

NOLAKO GAUZAK

Senarrak: Bildotsak dira munduko abererik txatxuenak.

Emazteak: Egia diozu, ene bildots orrek.

ARGIBIDEAK

Emazteak: Zurekin ezkondu nintzan, eta enuen arkitu billatzen nuena.

Senarrak: Nik ez nuen billatzen arkitu nuena.

ADISKIDE ARTEAN

—Nik berdin idazten dut zein eskuian zein ezkerakin.

—Zuk, bear bada, ezkerdunen eskolan ikasiko zendun.

—Bai zera! Nere errian ez dago eskolarik.

URRUTIZKIÑA

Nastea sortu da urrutizkin edo telefonuan. Alde batetik izketan ari dan jauna minberatu da oso.

—Alotzen bat al daukagu urrutizkiñean?

—Emengo aldetik ez beinzat.

EDER BAT

—Saltsa ederra ekarri didate!

—Zergatik diozu, jauna, ederra dala?

—Oillasko izpirik ere ez duelako.

ANDRE LODIA

Zazpikaleetako larrutegi batera sartzen da emakume lodi bat:

—Larruzko txupi, berogarri bat nai nuke, goitik beerakoa, gorpuzta oso-osorik estaltzen duena.

—Baiña, andre, eziña duzu ori. Zu bezin animala aundirik ezta ezagun.

DENDAN

—Oial au inglesa duzu, guztiz gogorra. Autobusak azpian artu zuen onako soñekoa (traje) eratu zuen nere laguna. Birrinduta gelditu zan bera tarrantaren azpian; aren soñekoa berriz, oiñordeko batek darama.

OSTATUKO GELAN

—Jeiki adi, amabiak dira-ta.

—Nik ez dut presarik.

—Ik, ez; baiña nik, apaldarrak jaten datozen ezker, maizapia bear diet.

ARROZTETXE AUNDIAREN ATARIAN

—Kotxea daukazutenetik ez zaituztet iñun ikusten. Nun sartzen zerate?

—Komisarian edo laguntza-etxetan.

IKAS-ALDIAN

Kristau-ikasbide irakasleak 10 Aginduetaz galdetzen die umeari.

—Ostutea pekatu dala diozu. Zein Aginduren kontra?

Kapatxuk, ezpai gabe, erantzuten du: Zazpigarrenaren kontra.

—Eta gezur esatea?—, galdetzen du maixuak.

—Zortzigarrenaren kontra—, da bertatiko jardespena.

—Ederki. Eta, orain, esaidazu: Pekatu al da katuaren buztanetik tira egitea?

—Bai.

—Zein Aginduaren kontra?

Ezpaian sartu da Kapatxu, baiña beingoan dio: Ez nago ziur, baiña nun edo nun ba-dio: "Jainkoak al-kartu duena, ezpei gizonak banandu".

"KARDABERAZ" TALDEA

Aita Austin Kardaberaz, Ernani'n jaiotako XVIII-garren mendean bizi; Jesus'en Lagundian sartuta, Euskal-erri guzian erriz-erri mixiolari gartsua izan zen. Euskeraren alorrean, garrantzi andikoa dugu bere izena, mintzatzen, idazten eta euskarara itzultzen lan asko egin zituelako. Gure izkuntza "ondo eskribitzeko, ondo irakurteko, ta ondo itzegiteko", EUSKERAREN BERRI ONAK liburu-ruxo zoragarria utzi zigun; ain zuzen, 1761 garren urtean, gure Iruñean atera zen lenengo argitaraldia.

Liburu ortan, argi agertzen zaigu Aita Kardaberaz'en asmoa: Euskal-erria kristautasunean jarrai dezan, euskera landu bear; ona emen bere itz urrezkoak: "Askoren animak sal batzeko, euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du".

Asmo onekin berakin, 1924-garren urtean, Gasteiz-ko apezgai talde bat bildu zen, eta, "Kardaberaz Bazkuna" izenekin lanean asi.

Orrenbeste urte ta gora-berak igarota, orduan bildu ziren batzuek —oraidik bizirik daudenak, alegia— berriz bildu dira. Lenengo denboretako eratzaillea, berekin dago gaur lendakari; ots: On Manuel Le-kuona, apaiz argi ta azkarra, orain dala denbora gutxi, Euskaltzaindiko Lendakaria zena.

Kardaberaz'en 200-garren urteburuan, berari omenaldiz, erabaki dute:

—bere bazkuna ber-piztu arazi;
—sarrera" errexu bazkide edo lagun izan nai denuari, dela gizon, dela emakume, dela eliz-gizon.

Argi dago ere: Euskal-erria "euskaldun ta fededun" jarraitzeko asmoa dutela, euskeraren bidez.

Lagun idazleak bere gain artu dute euskera "errikoian" liburuak argitaratzea. Orain arte, taldekoek eman diguna:



—"Kardaberaz Aitari Omenaldia"
—"Neurriztia"
—"Ezpalak"
—"Suge-gorri"
—"Kardaberaz"
—"Soinketa"
—"Euskal-erriko jainko-txiki"

Elkarte oni, napar euskalzale batzuek beren izena eman diote. Dudarik gabe, gauden denboretan, olako bazkunak oso egokiak dira Euskal-erriaren alde lan zuzena egiteko.

Naiz izena emateko, naiz baldintzak eskatzeko, zuzenbide ontara idatzi dezakezue: "Kardaberaz Bazkuna". S. Martin, 57, entlo. San Sebastian.

LARRATE

Euskal izenak (XXI)

MAIDER



(1890), Joannateguy-ren liburuak, Madame Maider Carrigui dio azal barnean. Eskuz idatzirik dago eta jabearen izena izango zen, noski. Dirudie-nez, hortik dator: Mari-eder esan nahi du.

Itzulpen honek ez du zer ikusirik lege gizonak eskatzen duten itzulpenarekin. Izen zaharra da, bai liburutan hala herriaren ahoan agertzen da eta bere nortasun badu.

HAUZIA

Esan dugun bezala, hauzia Madrilen dago. Iruñeko lege gizonak ezetzkoa eman ondorean jo da gora. Ustez iñork aurretik ereman ez zuelakoan egin dira gauzak; eta Madrilen debekatua izan dela jakin dugu gero. Alegia, Beasaindarren batek bere buruz ibilia zuela bide bera, eta ezetzkoarekin itzuli.

Harrigarria da gure artean gertzen ari dena. Edozeinik, dirudie-nez, jotzen du hauzitegi nagusira. Eta Euskaltzaindiak ezer ez zekien; hortan sarturik gabil-tzenok ere ez. Zer indarreko arrazoiekin jo dute beraz? Aurrez ongi azertu behar dira gauzak Madrilera eramatekotan; eta ezetzko arriskuan ez sartu. Behin ezetzkoa izandakoan oso zaila bai da lege gizonak atzera itzularatzea! Urko, Iker, Maitane, Eneko eta beste askoren hauzia behar bezala eremana izan balitz ez genuen inoiz ezetzkorik izango. Eta orai Maider ezetz-tua! Arinkeriak kalte ikaragarriak egiten dizkigu. Ez da hobea gu-zia hauzokoena. Negargarria gu-raso hauen jokabidea. Bere ez ez lortu, eta atzetik dato-zenei bidea moztu.

ITZULPENEA

Eibar-go Juan San Martinek duen "Sainduen Bizitza"

SAGI